

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARBULUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Titularitatea ikertzeko espedientea

Arbuluko Kontzejuak 2020ko uztailaren 3an hau erabaki du:

Lehenengo: Burgeluko udalerriko 1 poligonoko 365 eta 366 lurzatieen artean dagoen bolatokiaren bidea ikertzeko prozedura hasia.

Bigarrena: ebazpen hau ALHAOn argitaratzea. Era berean, ebazpen hori kontzeju honen eta Burgeluko Udalaren iragarki oholetan jarriko da jendaurrean, 15 egun baliodun.

Hirugarrena: Jendaurrean jartzeko izapidea betetze aldera hilabeteko epea ematea, iragarkiak kontzeju honen eta Burgeluko Udalaren iragarki oholetan argitara emanik edukitzeko epea amaitu ondoko egunetik hasita, ikerketa espedienteak eragiten dien pertsonen aukera izan dezaten beren eskubidearen alde egoki deritzetena alegatzeko administrazio batzarraren aurrean idazki bat aurkeztuz, alegazioen funts gisa dauzkaten agiri guztiekin batera. Hori guztia ez da eragozpen izango jakinarazpena banan-banan egiteko espedienteak eragiten dien guztiei, baldin eta ezagunak badira edo nor diren ezagutu ahal bada.

Halaber, frogantza epe bat hasia, hogeita hamar eguneko. Honako elementu hauek onartuko dira:

- Notario, judizio edo administrazio agiri publikoak, zuzenbidearen arabera emanak.
- Adituen azterketa eta irizpena.
- Lekukoen deklarazioa.

Arbulu, 2020ko uztailaren 3a

Lehendakaria

ANA SASIGAIN ELORZA